



❖ PELOTA Pelota jaialdia gaur kiroldegiko frontoian

Bihar pelota jaialdi ederra ikusteko aukera izango da kiroldegian. Bertan bi partidu izango dira, Kirol Patronatuak antolatuta eta Pelota Elkar-tearen laguntzarekin: Estelarean Esain eta Bengoetxea V Arbizu eta Behobideren kontra jokatuko dute eta bigarren partiduan Oier Mendizabal hernaniarra Eskuderoren kontra arituko da. Jaialdia 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio ditu. ||

37 hernaniar omenduko ditu igandean Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek

Eskualdean 25, 40, 50 eta 75 aldiz odola eman dutenak omentzeko ekitaldia eta bazkaria antolatu dute igande honetan Andoainen. Odol emate kopurua jaitsi egin da

GIPUZKOAKO Odol Emaileen Elkartek urtero omentzen ditu 25, 50 eta 75 aldiz odola ematen duten herritarak. Hala ere aurten berritasun bat du omenaldiak, 40 aldiz odola eman duten emakumeak ere omenduko baituzte. Emakumeek gizonezkoek baina gutxiagotan eman ahal izaten dute odola eta horregatik egin dute aldaketa hau. Guztira 37 hernaniar omenduko dituzte aurten eta denera 900 gipuzkoar. Lehen-go urtean Anoetako belodromoan egin zuten ekitaldia eta bazkaria, baina aurten erabaki dute omenaldiak eskualde bakoitzean egitea, bereizita.

Omenaldia eta bazkaria

Hernani eta ingurukoek (250 pertsona guztira) Andoaingo Bastero kultur etxean jasoko dute saria: 25 aldiz odola eman dutenek diploma eta zilarrezko intsignia; eta 40 eta 50 aldiz eman duten gizon-emakumeek elkar-tearen oroigarri bat (eskultura txiki bat). 75 aldiz odola eman dutenei berriz Estatu mailan jasotzen dute saria, hala ere Gipuzkoako odol emaleen elkartek asmoa du azaroa aldera pertsona

laz urte sasoi honetarako 650 odol emate izan ziren Hernanin eta aurten 616ra jaitsi da. Gipuzkoan ere %4 jaitsi da odol emateen kopurua.

Aurten 40 aldiz odola eman duten emakumeak ere omenduko dituzte.



Anbulatorioan izaten da odol ematea hilabetero.

hauekin ospakizun bat antolatzeko.

Omenaldi ekitaldia 12:30etan hasiko da eta ondoren, 14:00ak aldera bazkaltzera joango dira guztiak Urnietako Oianume jatetxera. Gero dantzaldia izango dute.

Odol emate kopurua jaitsi egin da aurten

Gipuzkoako odol emaleen elkar-tearen datuen arabera aurtengo odol emate kopurua jaitsi egin da. Laz urte sasoi honetarako 650 odol emate izan ziren Hernanin eta aurten 616. Gipuzkoan ere jaitsi egin dira odol emateak %4 inguru.

Odol Emaile Elkartetik adierazi dutenez aurten bi hilabete izan dira oso txarrak: ur-

tarrila eta abuztua, batean hotza eta elurra eta bestean beroa egin zuen: "Hernanin hila-betean behin etortzen dira odola ateratzera eta egun horretan hotza, beroa edo eguraldi txarra egiten badu asko nabaritzen da" diote elkar-te honetatik.

Odola emateko osasunez ondo egotea nahikoa

Osasunez ondo egotea nahikoa da odola emateko eta 18 eta 65 urte arteko adina izatea. Odola ematera joaten denari sendagileak galdeketa bat egiten dio eta bada-epada odol analisiak ere egiten zaizkio lehenago. Analisi horien bidez odol emalearen osasunean arazoren bat aurkitu ezker, abisatu egiten zaio eta odola ez da erabiltzen.

Hernanin hilabeteko lehen asteartean ematen da odola, ambulatorioan, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara. ||

Odol bankoa, etengabe berritu beharreko altxorra

Jasotako odola Gipuzkoako Odol Bankora joaten da. Banko horretan 7 egunetarako erretserba egon behar du gutxienez. Bertako odola etengabe berritu behar da, galdu egiten baita (plaketak 5 egunetan eta globulo gorriak 35 egun inguruan galtze dira). Horregatik izaten dira hain maiz odola emateko kanpainak eta deiak.

Odol asko ematen da Euskal Herrian

Euskal Herrian ematen da estatu mailan odola gehien. Datu ona da, baina baita arriskutsua ere Odol Emaileen Elkar-tearen hitzetan: "Jendeak pentsa dezake odol faltarik ez dagoela, baina odola berritu egin behar da". Bestalde iazko datuak ikusita Gipuzkoan odola jasotzen den 55 herritatik Hernani 41garren dago, 1.000 biztanleko odol emate kopuruan. Hala ere, datu hauek gorabehera asko izaten dituzte eta ||

❖ ETXERAT

Kontzentrazioa gaur Plaza Berrin

Etixerat Elkartek kontzentrazioa egingo du gaur arratsaldeko 20:00etan *Estatu Politikoa orain, Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean. Elkar-te honetatik adierazi dute kontzentrazioa Plaza Berrin izango dela, Zinkoeneako obrak bukatu artean. ||

❖ ZINEA BITERIN

Bi filme ikusteko aukera asteburuan

Asteburu honetan bi filme ikusteko aukera izango da, Biterin astero izaten den zine eskaintzaren barruan. Helduentzako *Cinderella man* jarriko dute eta ume-entzako *Charlie y la fabrica de chocolate*, Tim Burtonek zuzendua eta Johnny Deep aktore ezaguna protagonista duela. Helduentzako proiektzioak izango dira: ostiralean 22:30etan; larunbatean 19:30etan eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. Umeentzako pelikula 17:00etan larunbata eta igandean. ||

 **gse**
Asesoreak

**Aholkularitza eta
tramitazio
zerbitzua**

Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54 - Faxa: 943 33 58 01
www@gseasesores.net

OINDI



taberna

**NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509**

Aseguruak  **CATALANA
OCCIDENTE**



Atzieta 30
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

TELEFONAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622
Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak: 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 FARMAZIAK Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 - 943 552941
Gauz: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793


GAUR Ez da aldaketa handirik izango. Zeru laino ugariekin izango dugu, hala ere eguzkia ikusteko aukera ere izango dugu. Hego haizea ibiliko da eta temperatura maximoa 22°Cren bueltan jarraituko du.

BIHAR Lainotsu jarraituko dugu. Gaizea izango da protagonista nabarmena eta nahiko abiaduran gainera. Temperaturak ez du aldaketarik izango.

Mikel Azkueren lanak Donostiako Kera5 galerian daude ikusgai

Hernaniarrak forma geometrikoak eta kolorea lantzen ditu bere margoetan. Bihar da azken erakusketa eguna.

MIKEL Azkue artista hernaniarraren lanak Donostiako Kera5 arte galerian daude ikusgai bihar arte, San Martin kaleko 62 zenbakian. Azkuek 26 koadro ditu exposizioan bertan, eta guztiek forma geometrikoak eta kolore biziak uztartzen dituzte.



Koloreen bidez forma geometrikoak egiten ditu Azkuek .

Pintura figuratibotik arte geometrikora

Mikel Azkue aspaldi hasi zen pintura munduan. 23 urterekin marrazki figuratiboak egiten zituen, baina artista honek Kronikari adierazi dionez, figuratiboa egiteaz aspertu eta "zerbait ezberdina bilatzen" hasi zen: "10 urte pasa nituen gaur egun erabiltzen dudun teknikara iritsi arte, atzera eta aurrera", dio Azkuek. Azkenean forma geometrikak sortzeari ekin zion: "geometria infinitoa da, ez da bukatzen, eta horrek erakarri ninduen".

Forma geometrikoak koloreen bidez banatzen ditu hernaniarrak, hori da bere ikurra. Modu horretan, formak sor-

Erakusketa bihar bukatuko da eta ordutegia du: goizean 11:00etatik 13:30ak arte eta arratsaldean 17:30etatik 20:30ak arte.

tzetan: "gorputza marrazkia da eta kolorea arima, behin hori irakurri nuen eta ados nago".

Leku askotan erakutsia

Azkuek teknika berri honekin hainbat lekutan erakutsi du: Biterin, Zarautzen, Donostiako Kutxan... Horretaz gain pintura figuratiboarekin Xalapartako lehenengo pintura lehiaketa irabazi zuen, bestek

tzeaz gain koadroari bolumena ematen dio. Kolore biziak erabiltzen ditu horretarako, oso bereziak, izan ere, bere hi-

Zutik-ek 18/98 sumarioen kontrako protesta ekitaldira joateko deia egin du

HERNANIKO Zutik-ek 18/98 sumarioen kontra igandean egingo den protesta ekitaldira joateko deia egin die herritarrei, prentsa ohar batean. Protesta ekitaldia eguerdiko 12:00etan izango da, Plaza Berrin.

'Sumario ilegal, injustu eta antidemokratikoa' Zutikek azaldu du sumario honetan 200 pertsonatik gora daudela prozesatuak eta horietatik 9 hernaniarrak direla. Zutikek dio prozesu hauek gobernuaren ideiekin bat egiten ez du-

ten pertsonen kontrakoak direla eta ETArekin lotura dutenaren aitzakian pertsonak, ideiak eta proiektuak kriminalizatu egingo direla.

Zutikek dio errepresio ekintza hauek gaitzesten dituztenak iritzi eta planteamendu ezberdinetatik egiten dutela, baina denak ere bat datozela eskubide zibil eta politikoen defentsan. Azkenik dio, giza eskubideen urraketa, datorren lekutik datorrela, askatasun pertsonal eta kolektiboen kontrakoak dela eta ondorioz gaitzetsi egin behar direla. ||

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

SASKIBALOA				PALETA			
Alebin mutilak	Elizabxo C-Inmaculada	Kiroldegia	Bihar 09:15	Alebinak	Langile B-Urumea C	Kiroldegia	Bihar 15:00
Alebin mutilak	Elizabxo B-Urumea A	Kiroldegia	Bihar 10:15	Alebinak	Langile D-Urumea B	Kiroldegia	Bihar 15:10
Alebin mutilak	Elizabxo A-Urumea C	Kiroldegia	Bihar 10:10	Alebinak	Urumea E-Elizabxo	Kiroldegia	Bihar 15:20
Alebin neskak	Urumea-Axular B	Kiroldegia	Bihar 10:10	Alebinak	Urumea D-Urumea F	Kiroldegia	Bihar 15:30
Infan.mutilak	Langile-Loyola A	Kiroldegia	Bihar 10:10	Alebin mutilak	Langile A-Langile C	Kiroldegia	Bihar 15:40
Infan.neskak	La Salle A-Eliz.Urum.	Donostia		ESKU PELOTA			
ERRUGBIA				Alebin mutilak	Langile A-Elizabxo A	Kiroldegia	Bihar 15:50
Benjaminak 4.	Langile A-Elizabxo A	Kiroldegia	Bihar 09:15	Alebin mutilak	Langile B-Langile C	Kiroldegia	Bihar 16:00
Benjaminak 4.	Langile B-Urumea A	Kiroldegia	Bihar 10:00	Alebin mutilak	Langile E-Urumea B	Kiroldegia	Bihar 16:10
Benjaminak 4.	Elizabxo B-Langile C	Kiroldegia	Bihar 10:45	Alebin mutilak	Urumea C-Elizabxo B	Kiroldegia	Bihar 16:20
Benjaminak 4.	Urumea B-Langile D	Kiroldegia	Bihar 11:05	FUTBOLA			
Benjaminak 4.	Elizabxo C-Langile E	Kiroldegia	Bihar 11:50	Benjaminak 3.	Langile A-Elizabxo A	Zubieta	Bihar 09:00
BOLEIBOLA				Benjaminak 3.	Langile B-Langile C	Zubieta	Bihar 10:00
Alebin neskak	Elizabxo-La Salle A	Andoain	Bihar 09:45	Benjaminak 3.	Langile B-Urumea A	Zubieta	Bihar 11:00
Benjaminak 4.	Andoain Ik A-Langile A	Andoain	Bihar 10:45	Benjaminak 3.	Urumea B-Elizabxo B	Zubieta	Bihar 12:00
Infan.mutilak	Arantzazuko-Inmaculada	Astigarraga	Bihar 11:30				
Kadete neskak	Inmaculada-Lizeotarrak	Donostia					
Kadete neskak	Langile-Santa Teresa	Donostia					

Jasota Bezala

Egin gogoratuz

1998ko uztailean 15a zen, goizeko 8ak inguruan gure amak esnatu ninduenan esanez "Mikel poliziak EGINen sartu dituk". Bertara iristerako langile asko, anaia tardean, eta jende franko jada han ziren. Gertu gertutik ikusi izan genuen EGIN Irratia eta Egin egunkariaren itxiera. Egun hartako malkoak eta amorrua ez ditut ahaztu, nahiz eta geroztik beste antzeko egoerak ezagutu izan: Egunkariaren itxiera, laguneren atxiloketa, alderdi politikoen ilegalizazioak...

Igande honetan goizeko

10etan EGINen elkartu eta ondoren Plaza Berrin datozen epaiketen aurrean gure iritziak, salaketak, burutazioak... plazaratzeko aukera izango ditugu. Igandean, gordeta dugun samina elkartasunean bilakatuko dugu. Bartzuetan nabaritzen dugun ezintasuna gainditu eta aurre egiteko borondate irmoa azalduko dugu. Behar bada, baka-rik arituta Madrileren aurre egitea zaila izango da, elkarrekin errazago egingo zaigu.

Mikel Arrieta Iraola

EHNA

EHNA tramitatzeko aukera bihar Biterin

Bildu Hernanik antolatuta, Udaltzaingoa ordezkarri bezala, bihar EHNA tramitatzeko aukera izango da, Biterin. EHNA tramitatzeko beharrezkoak dira: 3 argazki, errolda ziurtagaria (Udaletxean eskatu eta momentuan eskura daiteke) eta 15 euro. Adin txikikoek famili liburuaren fotokopia ere eraman beharko dute. Biterin izango dira bihar, larunbata, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Horrekin batera azaldu dute kurtso honetan hilabetero, hirugarren larunbatean izango dela EHNA egiteko aukera. Azkenik, EHNA etxean jaso ez dutenei esan nahi diete bidean direla eta berandu baino lehen etxean izango dituztela. ||

KONTZERTUA

Ansa ahizpen euskal kanten kontzertua bihar Oartzunen

Aranoko Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansa euskal kanten kontzertua eskainiko dute larunbatean Oartzunen. Piano eta gitarraz lagunduta eskainiko dute kantu saioa. Kontzertua bihar Oartzungo Auzokalte elkartearen aretoan izango da, arratsaldeko 18:30etan. ||

IPUIN KONTAKETA

Haurrentzako ipuinak asteartean liburutegian

Datorren asteartean, hilaren 25ean, ipuin kontaketa izango da udal liburutegian. Bi saio antolatu dituzte: aurrenekoa arratsaldeko 17:30etan izango da, 3-4 urteko haurrentzako; bigarrena, arratsaldeko 18:00etan izango da, 5-7 urteko haurrentzat. Lur Korta ariko da ipuin kontalari lanetan. Ipuin kontaketa saio hau Hernaniko Udalak antolatzen du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. ||

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldari bat behar dugu **jatetxe** batean lan egiteko. Deitu: 647 75 16 23

HONDA SCOOPY 75 motorra dut saltzeko, egoera onean. 400 euro. Deitu: 605 70 42 65

Erleak salgai. Interesatuak deitu: 943 55 15 03

Iñigo Royo Masajista. Masajista, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arutz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15